

BURUKETAK

- Supermerkatuan, 8kg-ko patata poltsa 16€-an saltzen dute, eta ondoko dendan, 3kg patata poltsa 9€-an saltzen dituzte. Zein tokitan da merkeagoa patata kiloak?

Erantzuna: Supermerkatuan patata kiloak € balio du eta ondoko dendan €. Beraz, merkeagoa da .

- Larraitzek sei loreontzi erosi zituen 1,65€-an bakoitza; bi zaku lur 21,93€-an zaku bakoitza, eta eskuarea 8,76€-an. Zenbat euro gastatu zituen guztira?

Erantzuna: Guztira € gastatu zituen.

- 36,83 metroko oihal zati batetik 18,9 metro saldu dira, goizean; eta 12,932 metro arratsaldean. Zenbat metro saldu dira guztira? Zenbat metro oihal geratzen dira hasierako piezan?

Erantzuna: Guztira metro saldu dira. Hasierako piezan metro oihal geratzen dira.

- Ibilgailu batek 437 km egiten baditu lau orduan, eta beti abiadura berean badoa, zenbat kilometro egingo ditu zehazki ordubeteen?

Erantzuna: km egingo ditu ordubeteen.

- 1 Formulako auto batek 128,65 km egin ditu zirkuituari hamabost bira eta erdi emanda. Zenbat kilometro ditu zirkuituak?

Erantzuna: Zirkuituak km ditu.

